

# Bero-beroan



ARABAKO FORU ALDUNDIA

Julio Nuñezek aztertutako pieza da goiko ezkerrekoa eta gainerakoak Joakin Gorrotxategik ikertutakoak.

## Iruña-Veleiako txostenak webean

ARABAKO FORU ALDUNDIAK Iruña-Veleiako tira-biren inguruko txostenak eta argazkiak webgunean (alava.net) zintzilikatu ditu. Ondokoak dira irakur daitezkeen txostenak:

- ✓ Eliseo Gil (aztarnategiko zuzendari ohia) eta Idoia Filloyk egindako txostenak eta beraiek eskatutako txostenak, Zientzi Batzorde Aholkularian emandakoak.
- ✓ Rubén Cerdánek eginiko txostenak, Veleiako materialei eginiko analisisien ingurukoak.
- ✓ Zientzi Batzorde Aholkulariko

kideek Iruña-Veleiako grafitoei buruz eginiko txostenak.

Txostenez gain argazkiak daude, besteak beste, Joakin Gorrotxategi, Julio Nuñez eta Juan Santosenak.

Era berean, Eliseo Gilek Arabako Batzar Nagusietan hitz egin du eta berriz ere zalantzan jarri ditu Arabako Foru Aldundiak osatutako Ikerketarako batzorde zientifikoak Iruña-Veleiako aztarnen inguruan ateratako ondorioak. Bere hitzetan, adituek iritziak eman dituzte eta horien gainean eraikitako hipotesia da. Aztarnategiko zuzendari izandakorekin batera zenbait langilek egin zuten agerraldia. Euren irudi profesionala zikindu izana salatu zuten eta ohore profesionala garbitzeko eskatu zioten Arabako Foru Aldundiari.

## TALAIAN

### Eroski: euskal eta kooperatiba nortasunari eutsi

Eroskik, Mondragon Taldeko banaketa enpresak, bide berria hasi du joan den asteburuan. Batzorde Orokor Berezia gehiengo handiz onartu zuen Egitura Sozietarioaren Estatutu Markoa. Zuzendaritzak estatutu hori sustatu zuen taldearen egitura aldatzeko eta Euskal Herriko zein Espainiar Estatuko dendetan lanean ari diren 52.000 langileak kooperatibista izateko. Beraz, 38.000 langile izan ahalko dira jabe, gainerakoak dagoneko badira eta. Hasi berria den prozesua amaitzen denean, hiru bat urte barru, Eroski munduko kooperatiba handiena izango da.

Bazkide guztiak ez ziren ados eta gutxiengo batek osoko zuzenketa aurkeztu zuen. Horien ustez, Eroskiren erabaki gunea Espainiar Estatura alda liteke eta egoitza ere Euskal Herritik kanpora kokatu. Mondragon Taldearekiko lotura hausteko arriskua ere badute bazkide horiek. Beldur horiek etorkizunean indar hartuko dute edo desagertu egingo dira. Zuzendari orokor Agustin Markaidek kezka horiei erantzun asmoz zera esan zuen batzar orokorra bukatutakoan: "Gure kooperatibak Mondragonekin duen eta parte garen euskal gizartearekin daukan konpromisoa berritu ditugu". Datozen hilabete eta urteetan, bide berria onartu dutenek eta ez dutenek, Eroskiren norabidea ikusi ahal izango dute. Zuzendari orokorrak esana zuen: "Prozesua bukatzen denean Eroskik oraingo ereduaren inolako tankerarik ez du izango". Gutxienez manten dezala kooperatiba nortasuna eta euskal nortasuna, egoitza Euskal Herrian duela.

Juan Mari Arregi

### “Esku era” jardunaldiak Topaguneak antolatuta

SORMENA izango dute ardatz 23an eta 24an egingo diren jardunaldiek. Euskara elkarteek eta sormenak izan duten lotura aztertuko dute eta baita etorkizunera begira izan dezaketen harremana ere. Besteren artean parte hartuko dute Karmen Irizarrek, Julen Arexolaleiba eta Andoni Eizagirrek. Larunbatean, *Sormen bizitzak kultura* izenburupean Jone Miren Hernandez, Josu Landa eta Xabier Monasterioak egingo dute hausnarketa. [www.jardunaldiak.org/egitaraua](http://www.jardunaldiak.org/egitaraua)

### AnHitz avatarrak euskaraz egiten du

EUSKARAZKO hizkuntza teknologia garatzea da proiektuaren helburuetako bat. Gizaki itxurako makinarekin ordenagailu bidez hitz egin daiteke, teklatura erabili gabe, ahotsez. Elhuyar Fundazioak, IXAk, EHUK, Vicomtech-ek eta Robotiker-ek parte hartu dute Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako proiektuan.